

2005eko Martxoak 8
Emakumeen nazioarteko eguna
HANDITAN IZANGO GARA

Aurrera!!!



HARIDMAGUADA
Moldaketak: LAB IRAKASKUNTZA

Helburu nagusiak:

Lanbide ezberdinak era kritikoan ezagutu.

Jendartean bai emakumeek bai gizonak egiten dituzten lanak duten garrantzia baloratu.

Lanbideak aztertzerakoan generoa muga ez izan.

Jarraibideak:

1. Ikasleak gelara aldizkariak ekarri eta lanean ari direnen pertsonen argazkiak moztuko dituzte.
2. Handitan izatea gustatuko litzaiokeenarena aukeratuko du bakoitzak.
3. Kartoi mehe batean itsatsi eta azpian aukeraketaren arrazoia idatziko dute.
4. Bakoitza beste sexukoa dela pentsa dezala eta berriro lanbidea aukera dezatela planteatuko diegu.
5. Berriro ere argazkia itsatsi eta azpian aukeraketaren arrazoia idatziko dute.
6. Bateratuko dugu egindako lana eta sexua kontuan izanik aukeraketak aztertuko ditugu:
 - Ezberdintasunik dago mutilek eta neskek aukeratutakoen artean?
 - Zergatik?
 - Aukeratu dute gauza bera sexua aldatu dutenean?
7. Eztabaidaren ondorioak landu eta aukera emango zaie, nahi izanez gero, aukeraketa aldatzeko.
8. Gelan egindako guztiarekin liburua osatuko dugu.